

Baso kudeaketa eta elkarteko jardueraren inguruko hitzaldia emango du Gipuzkoako Baso Elkarateak Soraluzen

Gipuzkoako Baso Elkarateak (GEBE) hitzaldi bat eskainiko du datorren asteazkenean, **uztailak 15 (19.00etan), Soraluzeko Herri Antzokian**. Bertan, elkarteko Debabarrena eskualdeko ordezkariak, Xabier Zubiaurrek, eta elkarteko teknikariek, Gipuzkoako Baso Elkarateak antolatzen dituen ekintza eta eskaintzen dituen zerbitzuez hitz egingo dute. Bizi dugun baso-pandemiak eratorrita sortu diren gaurkotasun-gaiak ere jorratuko dituzte GEBEko ordezkariak, hala nola, pinuaren gaitzak jota dagoen azalera, intsinis pinua bera ordezkariak dezaketen espezie anitzak, diru-laguntzak, etabar. Hori guztia, gure lurraldean baso kudeaketa jasangarria mantentzeak duen garrantzia azpimarratuz.

Hitzaldia bizilagun eta inguruko herritar guztientzat irekia izango da, doan, Soraluzeko Udalaren laguntzari esker. Soraluzek, zehazki, 902 hektareako zuhaitz-masa du, udalerrri osaren azalaren % 64 eta hori guztia inguruko baserritarrek, jabeek, kudeatzen dute. Gipuzkoako Baso Elkarateko ia 2.800 bazkideetatik, gehienak baserritarrak dira.

GIPUZKOAKO
BASO ELKARTEA

ASOCIACIÓN DE PROPIETARIOS
FORESTALES DE GIPUZKOA